Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

**OGASUN ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

1230

AGINDUA, 2009ko otsailaren 27koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, 339/2008 eta 340/2008 epaiak betetze aldera eta gaiari buruz Argitze-Autoan adierazitakoari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomiadunetako karrerako funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak, I-A, I-B, II-A, II-B, II-C eta III-A berariazko osagarria dutenak, betetzeko berariazko lehiaketetarako oinarri orokorrak onartzen dituen Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko azaroaren 21eko Aginduak onartutako oinarri orokorrak egokitzeari ekiteko dena.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko azaroaren 21eko Aginduaren bitartez onartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomiadunetako karrerako funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak, I-A, I-B, II-A, II-B, II-C eta III-A berariazko osagarria dutenak, betetzeko berariazko lehiaketetarako oinarri orokorrak.

Aipaturiko 2007ko azaroaren 21eko Agindua aurkatua izan dela eta, Vitoria-Gasteizko 3 zenbakiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak 2008ko abenduaren 18ko dataz 339/2008 eta 340/2008 epaiak eman ditu, hurrenez hurren, 71/2008 eta 63/2008 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoei dagozkienak.

Alde batetik, 339/2008 Epaiak adierazten du 5.5 oinarria zuzenbidearen aurkakoa dela, izan ere, 4. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan euskararen hirugarren hizkuntza eskakizunarentzat ezartzen duen balioa % 11 baino txikiagoa da. Beraz, beharrezkoa da aipaturiko oinarria epaian ebatzi denaren arabera egokitzea.

Bestetik, irakurketa bateratua egiten badugu nolabait txertatu edo uztartzeko bi epai-ebazpenok 340/2008 Epaiari buruz 2009ko urtarrilaren 20ko dataz aipaturiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak ere eman duen Argitze-Autoak emandako arrazoimenduarekin, atera daitekeen ondorioa da jokabide-elkarrizketa egituratua zuzenbidearen aurka doala legez edo arauez aurrez aurreikusitakoa nahikoa ez delako eta, edonola ere, berariazko merezimenduen balorazioa, II. Fasea izenekoari dagozkiona, alegia, egin behar dela fase hori

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

1230

ORDEN de 27 de febrero de 2009, de la Consejera de Hacienda y Admnistración Pública, por la que en ejecución de las Sentencias 339/2008 y 340/2008, y en los términos del Auto de Aclaración dictado al respecto, se procede a la adecuación de las bases generales aprobadas por Orden de 21 de noviembre de 2007 que rigen los concursos específicos para la provisión de puestos de trabajo con complemento específico I-A, I-B, II-A, II-B, II-C y III-A, reservados a personal funcionario de carrera de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.

La Orden de 21 de noviembre de 2007, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, aprueba las bases generales de los concursos específicos para la provisión de puestos de trabajo con complemento específico I-A, I-B, II-A, II-B, II-C y III-A, reservados a personal funcionario de carrera de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.

Habiéndo sido impugnada la precitada Orden de 21 de noviembre de 2007, el Juzgado de lo Contencioso-Admnistrativo n.º 3 de Vitoria-Gasteiz ha dictado las Sentencias n.º 339/2008 y 340/2008, de fecha dieciocho de diciembre de 2008, correspondientes a los recursos contencioso-admnistrativos n.º 71/2008 y 63/2008, respectivamente.

De un lado, la Sentencia 339/2008 declara disconforme a derecho la base 5.5, en cuanto que la misma determina un valor para el perfil 3 de euskera en los puestos de perfil lingüístico 4 inferior al porcentaje del 11%. En consecuencia, se hace necesaria la adecuación de la mencionada base a lo resuelto judicialmente.

De otro, una lectura integrada de las dos resoluciones judiciales, particularmente atenta con el razonamiento expuesto en el Auto de Aclaración, que respecto de la Sentencia 340/2008, con fecha 20 de enero de 2009, ha dictado igualmente el mencionado Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, permite concluir que la regulación de la denominada entrevista conductual estructurada es contraria a derecho por carecer de previsión normativa legal o reglamentaria suficiente y que, en cualquier caso, la valoración de los méritos es-

bere osotasunean hartuta eta, hortaz, gainditzeko lortu behar den gutxienezkoa ulertu behar da fase osoa hartuta bezala eta ez, ordea, faseko meritu bakoitzari buruz.

Hori dela eta, epaiaren nondik norakoak argitzeko ebazpenak berak behartzen du egokitzera hain zuzen ere oinarri orokorretako 6. epígrafe oso hura non txertatzen den eta bertatik kendu behar jokabide-elkarrizketa egituratuari buruz egiten den edozein aipamen, aipaturiko elkarrizketa kentzen delarik. Beraz, dagokion egokitzapena egin behar da berariazko lehiaketak arautzen dituzten oinarri guztiekin bat datorren aplikazio bat egitearren.

Labur bilduz esanda eta ikusirik, alde batetik, aipaturiko epaiak Agindu honetan araututakoaren ondorioei dagokienez irmoak direla eta, bestetik kasuan kasuko balorazio batzordeek beren jarduerarekin jarraitu behar dutela hain zuzen ere judizialki ebatzitakoarekin bat datozen oinarri batzuetara egokituta, beharrekoa da Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko azaroaren 21eko Aginduaren bitartez deitutako berariazko lehiaketak arautzen dituzten oinarri orokorretan dagokion egokitzapena egitea.

Horregatik guztiagatik eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 46. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoaren arabera eta urriaren 13ko 190/2004 Dekretuak onartutako Euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko Araudiarekin bat etorriz eta aipaturiko Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 6.1.j) artikuluan emandako ahalmenari jarraituz honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko azaroaren 21eko Aginduaren I. eranskineko 5.5. oinarria aldatzen da. Aipaturiko Aginduaren bitartez, hain zuzen, onartzen ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomiadunetako karrerako funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak, I-A, I-B, II-A, II-B, II-C eta III-A berariazko osagarria dutenak, betetzeko berariazko lehiaketetarako oinarri orokorrak. Aldaketa horren arabera idazkera berria honelakoa da:

«5.5.– Euskara.

Eskaturiko lanpostuak lanpostu-zerrendan derrigortasun-data iraungirik ez baldin badu baloratuko dugu euskara.

Euskara merezimendutzat joko da; gehienez ere 44 punturekin, puntuazio honen arabera:

4. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan:

– 1. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeagatik: 20 puntu.

pecíficos correspondientes a la denominada Fase II ha de hacerse atendiendo al carácter unitario de la misma, por lo que el mínimo a obtener para su superación ha de entenderse referido a toda la fase y no a cada uno de los méritos contenidos en la misma.

En este sentido, la propia resolución aclaratoria de la instancia respecto del alcance de la sentencia, obliga a una adecuación de todo el epígrafe 6 de las bases generales en el que se integra, eliminando del mismo toda referencia a la entrevista conductual estructurada, que queda eliminada. Consiguientemente, procede realizar la correspondiente adecuación al objeto de proceder a una aplicación congruente con el conjunto de las bases que rigen los concursos específicos.

En resumen, a la vista de que las sentencias referenciadas son firmes a los efectos de lo regulado en esta Orden, y de que las correspondientes Comisiones de Valoración han de proseguir su actividad ajustándola precisamente a unas bases que resulten conformes con lo resuelto judicialmente, se hace necesaria la ejecución de las sentencias de referencia, procediendo a la correspondiente adecuación de las bases generales que rigen los concursos específicos convocados por la Orden de 21 de noviembre de 2007, de la Consejera de Hacienda y Admnistración Pública.

Por todo ello, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 46 y siguientes de la Ley de Función Pública Vasca y en el Reglamento de provisión de puestos de trabajo del personal funcionario de carrera de las Administraciones Públicas Vascas, aprobado por Decreto 190/2004; y en virtud de la competencia atribuida en el artículo 6.1.j) de la mencionada Ley de Función Pública Vasca.

RESUELVO:

Artículo 1.– La Base 5.5 del del anexo I de la Orden de 21 de noviembre de 2007, de la Consejera de Hacienda y Admnistración Pública, por la que se aprueban las bases generales que han de regir los concursos específicos para la provisión de puestos de trabajo con complemento específico I-A, I-B, II-A, II-B, II-C y III-A, reservados a personal funcionario de carrera de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos, queda redactada como sigue:

«5.5.– Euskera.

El euskera se valorará siempre que el puesto que se solicite no tenga fecha de preceptividad vencida en la Relación de Puestos de Trabajo.

El euskera se valorará como mérito hasta un máximo de 44 puntos, conforme a la siguiente puntuación.

Puestos con perfil lingüístico 4:

– Por la acreditación del perfil lingüístico 1: 20 puntos.

– 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeagatik: 30 puntu.

– 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeagatik: 44 puntu.

– 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeagatik: 44 puntu.

3. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan:

– 1. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeagatik: 20 puntu.

– 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeagatik: 30 puntu.

– 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeagatik: 44 puntu.

2. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan:

– 1. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeagatik: 20 puntu.

– 2., 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeagatik: 44 puntu».

2. artikulua.– Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko azaroaren 21eko Aginduaren I. eranskineko 6. oinarria aldatzen da. Aipaturiko Aginduaren bitartez, hain zuzen, onartzen ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomiadunetako karrerako funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak, I-A, I-B, II-A, II-B, II-C eta III-A berariazko osagarria dutenak, betetzeko berariazko lehiaketetarako oinarri orokorrak. Aldaketa horren arabera idazkera berria honelakoa da:

«6.– Merezimenduen balorazioa (II. fasea).

6.1.– Fase honetan merezimenduak lanpostu bakoitzerako behar diren ezagupenen eta trebetasun garrantzitsuenen arabera baloratuko ditugu.

6.2.– I-A eta I-B berariazko osagarria duten lanpostuak lortu nahi izanez gero, proba praktikoa egin beharko da.

6.2.1.– Proba praktikoa 6.5 oinarrian azaldutako irizpideen arabera baloratuko da. Proba horren gehienezko puntuazioa 100 puntu dira, eta gainditzeko gutxienez 50 puntu lortu beharko dira.

6.2.2.– Ezabatua izan da.

6.3.– II-A, II-B, II-C, eta III-A berariazko osagarria duten lanpostuak lortu nahi dituztenek proba praktiko bat egin beharko dute.

Proba praktikoa 6.5 oinarrian azaldutako irizpideen arabera baloratuko da. Proba hori gehienez 200 punturekin baloratuko da, eta gainditzeko gutxienez 100 puntu lortu beharko dira.

6.4.– Ezabatua izan da.

6.5.– Proba praktikoa.

– Por la acreditación del perfil lingüístico 2: 30 puntos.

– Por la acreditación del perfil lingüístico 3: 44 puntos.

– Por la acreditación del perfil lingüístico 4: 44 puntos.

Puestos con perfil lingüístico 3:

– Por la acreditación del perfil lingüístico 1: 20 puntos.

– Por la acreditación del perfil lingüístico 2: 30 puntos.

– Por la acreditación del perfil lingüístico 3 o 4: 44 puntos.

Puestos con perfil lingüístico 2:

– Por la acreditación del perfil lingüístico 1: 20 puntos.

– Por la acreditación del perfil lingüístico 2, 3 o 4: 44 puntos».

Artículo 2.– La Base 6 del anexo I de la Orden de 21 de noviembre de 2007, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se aprueban las bases generales que han de regir los concursos específicos para la provisión de puestos de trabajo con complemento específico I-A, I-B, II-A, II-B, II-C y III-A, reservados a personal funcionario de carrera de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos, queda redactada como sigue:

« 6.– Valoración de méritos Fase II.

6.1.– En esta fase la valoración de méritos se realizará en función de los conocimientos y destrezas más relevantes de cada puesto.

6.2.– Quienes aspiren a puestos de complemento específico I-A y I-B deberán realizar una prueba práctica.

6.2.1.– La valoración de la prueba práctica se hará de acuerdo a los criterios enumerados en la base 6.5. Esta prueba tendrá una puntuación máxima de 100 puntos, siendo 50 puntos la puntuación necesaria para superarla.

6.2.2.– Queda suprimida.

6.3.– Quienes aspiren a puestos con complemento específico II-A, II-B, II-C y III-A deberán realizar una prueba práctica.

La valoración de la prueba práctica se hará de acuerdo a los criterios enumerados en la base 6.5. Esta prueba tendrá una puntuación máxima de 200 puntos, siendo 100 puntos la puntuación necesaria para superarla.

6.4.– Queda suprimida.

6.5.– La prueba práctica.

6.5.1.– Deitutako lanpostu bakoitzerako berariazko proba praktiko bat egingo da. Nolanahi ere, baldin eta bi lanpostu edo gehiagorako ezagupen edo trebezia berberak badira, baliteke Balorazio Batzordeak eskainitako lanpostu desberdinetarako proba praktiko bera egitea erabakitzea. Proba praktikoa arazo batzuei irtenbidea topatzea edo proiektu bat egitea izan daiteke. Nolanahi ere, III-A lanpostuak lortu nahi dituztenentzako proba praktikoa, kasu guztietan, zenbait arazori irtenbidea topatzea izango da.

6.5.2.– Arazoei konponbidea aurkitzeko proba praktikoan hau baloratuko dugu: izangaiak nola aplikatzen dituen ezagupenak, printzipioak, trebeziak, prozedurak eta estrategiak lanpostuaren atazak betetzearekin lotutako arazoak konpontzeko.

6.5.3.– Proiektua egiteko proba praktikoan hau baloratuko dugu: izangaiak nola aplikatzen dituen ezagupenak, printzipioak, trebetasunak, prozedurak eta estrategiak, helburua lortzeko behar diren ekintzak planifikatzerakoan eta programatzerakoan, denbora, kostu eta baliabide-mugak kontuan hartua.

6.5.4.– Arazoei irtenbide emateko probaren erantzuna ondoren azaltzen den eskema orokorrera egokituko da. Dena den, Balorazio Batzordeak eskema lanpostuaren berezitasunetara egokitzea izango du.

1) Arazoa ulertzea eta deskribatzea.

2) Zer konponbide izan dezakeen aztertzea.

3) Konponbiderik egokiena aukeratzea eta aplikatzea.

4) Konponbidea ebaluatzea eta horren segimendua egitea.

6.5.5.– Proiektua egiteko probaren erantzuna ondorengo eskema orokorraren araberakoa izango da. Dena den, Balorazio Batzordeak eskema lanpostuaren berezitasunetara egokitzea izango du.

1) Diagnostikoa.

2) Diseinua: titulua, helburuak, justifikazioa, aurreikusitako ekintzak, kronogramak, baliabideak.

3) Betearazpena edo ezarpena.

4) Proiektuaren segimendua eta ebaluazioa.»

6.6.– Ezabatua izan da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Balorazio batzordeak.

Erabateko independentziaz, diskrezionalitate teknikoaz eta objetibotasunaz jarduteari uko egin barik, kasuan kasuko Balorazio Batzordeak oinarri hauetan ezarritakoari jarraituz jardungo du merezimenduen balorazioari nahiz proba praktikoari dagokienez. Halaber eutsi egingo die orain arte egin dituzten jarduera guztiei baldin eta oinarri hauen aurkakoak izan ez badira.

6.5.1.– Se realizará una prueba práctica específica para cada puesto convocado. No obstante, la comisión de valoración podrá optar, en el caso de transversalidad entre los conocimientos y destrezas de dos o más puestos, por realizar una misma prueba práctica para diferentes puestos convocados. La prueba práctica podrá ser de Solución de Problemas o de Elaboración de Proyecto. No obstante, la prueba práctica para los aspirantes a puestos III-A consistirá, en todos los casos, en una prueba de solución de problemas.

6.5.2.– La prueba práctica de solución de problemas servirá para valorar la aplicación de conocimientos, principios, destrezas, procedimientos y estrategias, en la resolución de problemas relacionados con la ejecución de tareas.

6.5.3.– la prueba práctica de elaboración de proyecto servirá para valorar la aplicación de conocimientos, principios, destrezas, procedimientos, y estrategias en la planificación y programación de las acciones necesarias para el logro de la meta incluyendo las limitaciones de tiempo, coste y recursos.

6.5.4.– La respuesta a la prueba de solución de problemas se ajustará al siguiente esquema general. No obstante, la comisión de valoración podrá adaptar el esquema a las peculiaridades de cada puesto.

1) Comprensión y descripción del problema.

2) Exploración de posibles soluciones.

3) Selección y aplicación de la solución más idónea.

4) Evaluación y seguimiento de la solución.

6.5.5.– La respuesta a la prueba de elaboración de proyecto se ajustará al siguiente esquema general. No obstante, la comisión de valoración podrá adaptar el esquema a las peculiaridades de cada puesto.

1) Diagnóstico.

2) Diseño: Título, Objetivos, Justificación, acciones previstas, cronograma, recursos.

3) Ejecución o implantación.

4) Seguimiento y evaluación del proyecto.»

6.6.– Queda suprimida.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Comisiones de Valoración.

Las respectivas Comisiones de Valoración, sin perjuicio de su actuación con plena independencia, discrecionalidad técnica y objetividad, ajustarán sus actuaciones a lo dispuesto en estas bases, tanto en lo referido a la valoración de los méritos generales, como en lo relativo a la prueba práctica, manteniendo todas las actuaciones realizadas hasta la fecha que no resulten contrarias a las mismas.

Bigarrena.– Indarrean sartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 27a.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua.
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Segunda.– Entrada en vigor.

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de febrero de 2009.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública.
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.